

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI). APARTAMENTUAK 2018KO AZAROAN

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak %34,2 gehitu ziren 2018ko azaroan

Hotel, landetxe eta apartamentu turistiko guztiak aintzat hartuz gero, ostatu-gauek %15 egin dute gora 2018ko azaroan hiru lurraldeetan

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gualdiak 2018ko azaroan 20.097 izan ziren, 2017ko azarokoen aldean %34,2ko gehikuntza.

Ostatu-gauek urtetik urterako bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %88,6 igo dira, Araban %21,8 eta Bizkaian %14,5.

Bestela ere, 2018ko azaroan 4.795 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko apartamentu turistikoetan, %12,1eko gehikuntza. Lurraldeka, bidaiari-sarrerek behera egin dute Araban %3,1, baina gora egin dute %16,6 Bizkaian eta %15,0 Gipuzkoan.

Gualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Ae apartamentu turistikoetan. 2018ko Azaroa

	Gualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2018/11	m/m-12 (%)	2018/11	m/m-12 (%)	2018/11	2017/11
EUSKAL AE	20.097	34,2	4.795	12,1	4,19	3,50
Estatukoak	15.047	28,1	3.777	11,0	3,98	3,45
Atzeritarrak	5.050	56,5	1.018	16,1	4,96	3,68
ARABA/ÁLAVA	7.009	21,8	848	-3,1	8,27	6,58
Estatukoak	5.467	17,2	813	2,6	6,72	5,89
Atzeritarrak	1.542	41,9	35	-57,5	44,06	13,20
BIZKAIA	6.644	14,5	2.371	16,6	2,80	2,85
Estatukoak	5.044	13,2	1.850	16,4	2,73	2,80
Atzeritarrak	1.600	18,8	521	17,1	3,07	3,03
GIPUZKOA	6.444	88,6	1.576	15,0	4,09	2,49
Estatukoak	4.536	72,9	1.114	9,2	4,07	2,57
Atzeritarrak	1.909	140,5	462	32,0	4,13	2,27

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Egonaldien batezbestekoa 4,19 egunekoa izan da aurtengo azaroan, 2017ko azaroan izandako 3,50 eguneko batezbesteko egonaldiaren gainetik. Arabako egonaldiak iazko azaroan 6,58 egunekoak izatetik 8,27 egunekoak izatera igaro dira aurten; Gipuzkoako kasuan, 2017ko azaroan 2,49 egunetik aurtengo azaroan 4,09 egunera luzatu dira egonaldiak; aldiz, Bizkaian gutxitu egin dira 2017ko azaroko 2,85 egunetik 2,80 egunekora aurten.

2018ko azaroko turista-balantzea

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 242.000 sarrera erregistratu dira 2018ko azaroan, %7,1eko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaiak Euskal AEko sarrera guztien %47,9 kontzentratzen ditu eta sarrera guztien batuketak %8,0 egin du gora. Gipuzkoak Erkidegoko sarreren %37,7 hartu ditu eta bere gorakada %9,2koa izan da; Araban, zeinek sarrera guztien %14,4 hartu baititu, %0,4ko beherakada izan da.

Ostatu-gauek %15,0 egin dute gora establezimendu turistiko hartzaileen guztizkoan, eta gorakada hori hiru lurraldeetan gertatu da: %18,1 Gipuzkoan; %14,7 Bizkaian; %8,2 Araban.

Gaualdiak eta sarrerek Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2018ko Azaroa

	Gaualdiak		Sarrerek	
	2018/11	m/m-12 (%)	2018/11	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	487.093	15,0	242.000	7,1
Araba/Álava	70.709	8,2	34.934	-0,4
Bizkaia	228.600	14,7	115.932	8,0
Gipuzkoa	187.784	18,1	91.134	9,2

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62